

Araizko Kablearen Eguna 2024 (Irailak 14):

Datorren larunbarean, irailak 14, Malloko belarra garraiatzeko sistema zaharra oroitzeko asmoa duen ekitaldi berezi honen zazpigarren edizioa egingen da Araizko bailaran.

2017an, araiztarren ekimenez, eta Araitzeko Udalarekin eta "Araizko Zaporeak" elkartearekin lankidetzan, Araizko bailarak bere ondare-elementu berezienetako bat berreskuratu zuen: belarra Malloko zelaietatik bailarako baserrietara jaisteko kable-sistema.

Egun honek helburu garrantzitsuak ditu, belaunaldi berriei transmititu nahi zaizkienak:

- Bailarako landa eta natura ondarea berreskuratzea eta sustatzea
- Baserritarren kultura eta, horrekin batera, baserrietako nekazaritzako elikagai osasuntsuen ekoizpena ikustaraztea eta zabaltzea.
- Araizko bailarako kultur eta turismo sustapena, bailarako eta zonalde osoko turismoa bultzatuz, landetxe, zerbitzu, jatetxe eta abarren bidez.

Aurten erakusketa- eta dibulgazio-gune txiki bat jarriko da martxan, begiratoki gisa, bisitariak Araizko kableen historia eta funtzionamendua zein Malloaren ingurune naturala eta kulturala modu autonomoan ezagutzeko eta interpretatzeko aukera izan dezaten. Behatoki hori Gaintzan dago, lehengo kableetako bat berreskuratu den toki berean.

Hori guztia proiektu handiago batean sartzen da, eta Araizko Udala eta Araizko Zaporeak elkartea lanean ari dira Malloko ondare historiko, kultural, etnografiko eta naturalari balioa emateko eta, aldi berean, ahalik eta ongien kudeatzeko. Eta, iniaitiba horren barne, Udalak Nafarroa Ezagutu Sarean sartzeko eskaera formala egin du.



**ARAIZKO
UDALA**



Programa

Urtero bezala, **Gaintza** herrian emango zaio hasiera (10:30ean plazan). Bertan, kableruntz abiatu aurretik, **ongi etorria** emanen da, Araizko kableei eta berreskuratzeari buruzko azalpen orokorrekin. Gero, taldean, ibilaldi polit bat eginez igoko gara, kablea berreskuratu den lekuraino ("**Zezelain**").

Toki honetan, **sega nola pikatu, belarra nola moztu eta buixiak nola prestatzen ziren erakutsiko dute**, gero belar-fardo hauek kablean behera botako dira. Aurreko mendeko 20 eta 60ko hamarkaden artean Malloan hain ohikoa zen lana erakutsiz.

Ondoren **bertako produktuekin egindako pintxoak eta edariak dastatuko dira**. Aperitiboaren ondoren Gaintzako elkartean egingo da bazkaria (20 € helduak eta 10 € haurrak. Txartelak jada, salgai daude Arribeko gasolindegian).

Malloko kablearen behatokia

Interpretazio eta erakusketa espazio txiki bat da, "Zezelain" izeneko inguruan kokatua, berreskuratutako kablearen ondoan.

Material tradizionalaz/naturalez egindako eraikuntza ekologikoa da, egurrezkoa eta, beraz, bisitariei babesa emateko prestatua dago. Espazioa bera irekia da, eta erakusketa-gune bat, biltegi txiki bat eta "bainu lehor" konpostagarri bat ditu. Guztira, 50m².

Bost azalpen-panelek osatzen dute erakusketa, eta horietan askotariko informazio ilustratua dago, testu laburrekin eta QR kodekin. Hauen bidez interneten dagoen informazio zabala eta interesgarria lortu daiteke. Edukiek Malloko ezaugarri nagusiak islatzen dituzte: biodibertsitatea, bizimodu eta aprobetxamendu tradizionalak (artzaintza, karobia, bideak, teileria, kableen sistema, etab.), inguruko fauna eta natura, ekosistemen hauskortasuna, etab.

Modu autonomoan bisitatzeko pentsatua dago, eta hainbat eduki bereziz landu dira, ikusmen-desgaitasuna duten pertsonentzako irakurketa erraztuz.



**ARAIZKO
UDALA**



Proiektua Nafarroako Gobernuak finantzatu du.

Nafarroa Ezagutu Sarea

Hain zuzen ere, duela urte batzuetatik bisitari askorentzat gune honek pizten duen interesa dela-eta (bai Malloko gailurretara egiten diren igoerengatik zein beste mendietan edo bailarako ibilbideetan egiten diren txangoengatik), udalak espazioa era ordenatuan kudeatzeko ardura hartu nahi du.

Kudeaketa egoki hori egiteko, udala harremanetan jarri zen **Nafarroa Ezagutu Sarearekin** beti ere sarean bertan sartzeko asmoarekin eta, ondorioz, elkarte honek erakunde bazkideei eskaintzen dien aholkularitza, prestakuntza, laguntza teknikoa, dirulaguntzak, esperientzia egokien ezagutza eta abarren onuradun izateko asmoarekin ere. Horrela, uztailen, udalak sarean sartzeko eskaera formala egin zuen.

Gogoratu behar da Nafarroa Ezagutu Sarea Nafarroako naturagune babestuak, gune bereziak eta erabilera publikoko ibilbideak kudeatzen dituzten 80 entitate baino gehiago biltzen dituen elkarte bat dela. Bere helburu nagusiak dira espazio horien garapen iraunkorra sustatzea, erakundeen arteko lankidetzak sustatzea eta bisitariei eta tokiko biztanleei eskaintzen zaizkien kudeaketa eta zerbitzuak optimizatzea. Gainera, esperientziak eta baliabideak trukatzeko topagunea da. Nafarroako Gobernuak berak, toki entitateek, tokiko garapen taldeek, turismo partzuergoek eta irabazi asmorik gabeko elkarteek osatzen dute.

Jarduera hau Araizko Udalak eta "Araizko Zaporeak" elkarteak antolatzen dute, eta Plazaola Partzuergo Turistikoaren laguntza du.

Arribe-Araitzen, 2024ko irailaren gan



**ARAIZKO
UDALA**

